

Hemen datzana

Edorta Jimenez

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
1991



Zumaiaiko Udala

*emskar
txanpan*



Hemen datzana

Edorta Jimenez

Julene Azpeitia 4. ipuin lehiaketa

1991

1. saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Edorta Jimenez (ipuinarena)

© Zumaiko Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Jueves, 4 de octubre

Navego a su camino al Güeste. Anduvieron entre día y noche 63 leguas. Contó a la gente 46 leguas. Vinieron al navío mas de cuarenta pardelas juntos y dos alcatraces y al uno dio una pedrada un moço de la caravela. Vino a la nao un rabiforçado y una blanca como una gaviota.

DIARIO DEL PRIMER VIAJE

Cristoval Colombus

-|-

Ene denboraren azkenetara ailegaturik, bila datorkidan Herioren hatsa aditzen dut, hotz eta hurbil, idazteko hartu dudan pergamu hau berau ere dardarazten. Haren begiak laster ene begietan pausatu eta dei mutua luzatuko didatela dakit. "Hator", esango dit, umetako lagun minak legez. Badakit ez naizena hari begietara zuzen so egitearen beldur izango, ez bati du etorkizunak minduraz akitzen ene baita, iraganetik datorren damuzko su iraungi ezinak baino. Aileza orain eskribatzen dudan honek gar horiek eragiten didaten erretura lagundu eta bidenabar, aileza berorrek ere nire arima gaixoaz errukitu eta Jainko guztiz ahaltsuari nire salbazioaren alde eska, zeren barkatzea buruaz gaitz egiten zaigunean ere bihotzak badaki errukia hartzen. Hala bada, luma hartu dut gaur, Gure Jaunaren mende honek berrogei urte betetzen dituen Gabon zahar honetan, Española izeneko irlako Salvación misioan.

Bosturi deritzan herritxoan jaio nintzen, Bizkaia aldean, gogoan ez dudan urtean, duela hirurogei bat arean, zeren nire gorputz luzaroan zigortuak duen itxurak halakoxe adina ageri baitut, Jauna. Ez naiz eskolatua. Ozta-ozta ikasi nituen letrak eta lumeroak herriko abadeak katexima ikasteko erabiltzen zituen liburuen bidez eta gurasoek horren berririk jakin gabe. Ez bide zegokidan galbidea eta nahasmen iturria diren liburuetakoak ikastea, nire ogibidea izan beharko ziren baserri eta itsasoko behar eta nekeetan trebatzea baino.

Gurasoen borondatearen gainetik Jainkoarena egonik, soroak nire izerdiak bustitzen hasi baino ez eta beste bide bat erakutsi zidan fortunak. Bilbon atontzen ziharduten nao baten albistea zabaldu zen gurean. Gose urtea izana zen aurrekoa, Jauna, hala da ezen, asko ziren bizi berri bila edonora joateko gertu zirenak, etxekoen artean bertan ere. Gure etxea ez zen aberatsa eta anaia nagusia ezik inoren morroi izatera kondenatuak ginen besteok, arreba biak neskame edo serora izateko jaioak ziren moduan. Bigarren anaiak esan zion aitari, "aita, entzunda dugu Bilbo aldean armatzen ari diren nao berri batena, ba; gizon gazte eta sendoak behar ei dituzte eta, haraxe joatea erabaki dut".

Anaia Bilbora joateko zen gaua, hura dut gogoan. Uda hasi berriko gau sargaritsu bat izan zen menturaz bideari ekiteko hautatu zuena. Zelatan egon nintzaion goizaldera arte, neuk ere etxetik ihes egitea bainuen erabakita. Abiatu zen, bada, anaia, oinez eta haren urratsetan joan nintzen neu ere, inori ezer esan gabe eta ezkutuan.

-II-

Hainbat urteren buruan, gutun hau izango da etxekoek nire berri lehenengoz izan dezaten modua. Damu dut Jauna, eta damu dudalako idazten diot berorri, etxekoei nire albistea eman eta egin nien okerkeriarentzako barkamena inork baino hobeto eskatzen jakingo duelakoan berorrek. Bilbora anaiari segika ailegatu ostean hari berbaren bat esan banio behintzat, kontsolamenduren bat izango zuten gurasoek. Beldurrak atzez eragin zidan, aitzitik. "San Martin" izeneko naoan itsasoratzeke sasoiz ailegatu bazen ere, ozta-ozta izan zen eta, nork daki ni han ikustean eta gurasoen errukia hartuta ez ote zuen etxerako bidea atzera desegingo, edo beste inoren eskuetan utziko ni, etxera itzul nendin. Hala bada, eta badaezpada ere, Bilbo zelatzen duen harresi sendoko ateez beste aldera igaro gabe geratu nintzen, harik eta "San Martin" izeneko hura itsasoratua zela ziur jakin nuen arte.

Bilbon kupel artean eman nituen egunak, Atzuri izeneko huritxoan, hango txiribogetariko batean, ezen herrian ere upelgintzan zer edo zer egiten ikasita bainengoen, uztaiak koipeztatzen, esate baterako. Mutil hartu ninduten, bada, Sevilla izeneko hurira joatekotan zen beste enbarkazio baten berri izan eta bertan erroldatu arte. "Bonita" zen haren izena. Bertan ikasi nuelako itsasokoen artean erabiltzen diren berbarik behinenak gordeko dut bizirik haren masteria harroa beti gogoan, ezen ez izan nuen itsasaldiagatik. Finisterre deritzon lurmuturrerainokoan sarrago jan zuten arrainek nire hesteetakoa nik neuk marmitatik baino. Amaierarik igartzen ez nion zorabio luzean eta kubiartako lan gogorrek egin beharrean, Finisterre berba horren esangura azaldu zidan bertan lagun egin nuen Peruk. Lehorreko aldearen amaiera da berba horren azpian datzana, eta zuzen iritzi nion, zeren norberaren akabera datorrelarik, egiatan esan daiteke oinazpian dugun lehorraldearen azkena ere datorrela.

Zorionez beste erro bat aurkitu zuen nire barruko atea, gomitularriak irekitzen ez zekiena; halaxe egin nintzen marinela, hau da, ekaitzik gogorrenak jota ere behera tantarik jausi gabe pitxarretik edaten dakiena. Edo Peruk esaten zuen moduan esanik, lehorreko dardara ezak ikaratu egiten duen gizakumea. Sevillara ailegatu ginenean guda itzel eta luze baten berri jakin genuen. Gaztelako erregina azken mairuak Granadatik kendu guran ei zebilen eta bost edo sei urtez luzatzen zen odol-jauste hartan bera nagusi ala hil egingo zela, halakoxe albisteak entzun genituen. Ni neu, Indietara joateko enbarkazioren baten begira nengoen, han ez bainuen fortunarik egingo, eta ordurako ja pentsatzen hasita nengoen etxera itzultzeko modu bakarra aberastasun handiren jabe egitea izango zela. Bien bitartean, upelgintzan ihardunaz irabazten nuen bizimodua, berriro ere, Peruren laguntzari esker. Haren ezaupidea egitea mundua izan zitzaidan, ezen eskribau baitzen, ezaguna hango huri eder hartan, eta herri guztiak begirunez hartzen zuena. Adiskide min baten etxean ezarri ninduen bada, sotoaren arduradun.

Etxe hartan, azahararen usainez hordituta, egunak abiada legunean joan ziren, hain modu berezkoan non, untziratu nintzenerako, Sevilla lehenengoz zapaldu nire oinek, aurreko gauean egin izan balute bezala izan baitzen. Aitzitik, urtebete igaro bide zen etorri nintzenaz geroztik, eskuetan nuen bihuela jotzen hartu nuen trebeziak, arratsalde bero askotako iharduraren fruitu, eta etxeke neskari, Jazmina zuen izena, agur esateak eragin zidan minak halaxe adierazten baitzidaten.

Guda amaitua zen Granada aldean. Gaztelako erregina Isabelek juduak erbestera bidean abiarazi zituen laster. Eta Peru laguna bera ere bide horretan sartu zen. Zer zion inori haren sinesmena gurearen ezberdina bazen, edo ez bazen, barruan zuen bihotz ona ezagutzen genion eta nahikoa genuen hori eder eta on irizteko.

Gibraltar izeneko aldera jo zuen Peruk, erbestera bidean. Azken agurra emateko besarkatu ninduelarik endelegatzerik izan ez nuen berbak xuxurlatu zizkidan, halako ahotsak eta histuraz non semetzat harturik izan ninduela aditu uste bainuen. Ez nenbilen oker. Ni haren seme jaio nintzela zioen pergamu ederto eskribatua eman zidan eskuetara, lakre gorritz ondo zigilaturiko halako gutunarekin batera. "Indietarako bide berrien bila abiatzekotan dira laster; paper hauei esker ez duzu oztoparirik topako, seme, zeu ere hara joan ahal izateko; judua naizenik, ez daki hemen askok oraindik, hala bada, joan zaitez, abiatu, bai, fortunaren bila Indietara; erakutsiozu gutun hau azalean dioen Joanes horri. Bera joango da eskribau karabeletariko batean."

Negarra begietan, Peruk esandakoa orpoz orpo bete nuen. Joannes ezagutu eta behingoan hartu ninduen bere ontziko marinel. "Gure karabelan etorriko haiz", esan zidan, aita balitz moduan. Eta karabela bigarrenez entzutean misterioaren baten atetan nengoelako susmoa hedatu zen nire barruan. Portuan ikusitakoak argitu zidan nire susmoaren nondik norakoa, zeren zur, oihal eta sokazko oihan hura ikustean, otu zitzaidan berba bi zirela berba bakarran: kara bela, ikatzarena.

-III-

Ontzien kanpoaldeko kara bela, Berorrek ere ondo dakien bezala, ez zen besterik brikea baino, hau da, zureriaren gainean ezartzen den geruza babeslea. Baina diodan non izan zen; bada, izan zen Palosen, non gure espedizioko karabela bien eta nao bakarraren apaiak atontzen ziharduen Columbus jauna, izenez Cristoval eta jaiotzez nondarra zen inork ere ez zekiena zehatz, han entzun nuenaren arau, behinik behin. Haatik, nire begiek agintzen zuten beste zentzumen guztien gainetik. Brikearen gainean arin agertu zen gorrixka mehea; laster, haize oihalak josi eta eguzki adarra baino ederrago ageri ziren hiru ontziak.

Biderako hornidurak untziratzeari ekin genioneko ardura zehatza eman zidan Joannesek. Gogoan hartu zuen ni zelan nintzen kupel artean ibilia, hala da ezen, antxo eta sardina gazituak gordetzen zituzten upeltxoak ez ezik, ardoarentzakoak ere jagon beharko nituen. Gizon bakoitzeko eta eguneko hiru azunbre ardo zegokigula esan zuelarik Maestreak, bidaiaren balizko luzeraz gogoetan sartu nintzen, honenbeste arima, hirurehun, honenbeste kupel,

ehunetik gora, eta nire kontuek urtebeteko bidea izango zela zioten. Ikaratu ere egin nintzen.

Gaztaroko ikarak, nola etorri, hala joaten dira, tximista legez. Ondo atondu nituen nire kupelak, kubiartan arraintzakoak, sotoan ardoz beterikoak, marinela egarberen ezkutuko eskuren bat tentazioan jausi zedin ekiditearren. Esandako zereginez gain besterik ere izan nuen, behin haize oihalak igo eta itsasorantz jo genuenez geroztik. Joannesek bere nabigazioko liburuan, idatzi beharrekoa esan eta azalduko zidan, kateximaren bidez ikasitakoak berriro gogora ekar nitzan eta egun batean, ziotan berak, ni neu ere eskribau izan nendin. Hala bada, denok txandaka bete behar genuen begirale zereginetik aske geratzen nintzen gauak haren ganbaran ematen hasi nintzen.

Nabigazioko lehen eguna agorrilak hiru izan zituen goizaldean izan zen, eguzkia agertu baino ordu erdi lehenago. Zelan ahaztu momentu harekin, zinetan hareazko erlojua buruz behera ezarri eta batek letania antzeko errezoa hasi zuen, "Bendita la hora en que Dios nació, San Juan que le bautizó/ la guardia es tomada-la ampollita muela/ buen viaje haremos-si Dios quisiere". Nik neuk ere hainbatetan errepikatu behar izango nuen leloa, erlojua ordu erdiro goikoaz behera orain eta behekoaz gora hurrengoan, etengabe erabiltzen baikenuen.

Hegoaldean behera jo genuen, Canarias izeneko izaroen bila. Finisterre baino beheerago lehorraldeak direna jakin nuen, bada, eta Joannesek argitu zidan, beste izarorik ere bazen beheerago, Madeira izenekoa, eta are beheerago ere, Azores izeneko multzoa. "Ez hadi ikaratu, Portugaleko marinela ibiliak dituk halakoetan; ondo zekik gure kapitainak horren berri." Ez zen nirea ikaran zebilen arima bakarra, aitzitik. Hiru egun baino ez itsasoan eta arazoak hasi ziren.

Martin Alonsok gobernatzen zuen "Pinta" gurea, "Niña" izenekoa zen bestea, txakur deslaien moduan hasi zen uretan, norako jakirik gabe. Almirantea bizi haserretu zen. Geroago entzun nuenaren arau, Pinta haren jabea zen Cristoval Quinterok eta adiskide zuen Rascón izeneko batek eurek gurata atera zuten gobernaria errotik. Gomerara jo beharra izan genuen. Eta nire artean jarduten nuen, zer ote zen bidaia hura, non ontzietariko bat armatu zuen kristaua bera ere bidearen bildur zen. Burua hausten nuen, nor behartu ote zuen gurekin etor zedin, ezen argi baitzegoen bere barruaren aurka egiten zuena itsasaldia.

"Gorteko gorabeherak korapilotsuegiak dituk, bai, hire adineko inork endelegatzeko. Egunen batean jakingo duk, jakin." Igaro dira urteak, Jauna, eta oraindik ere Joannesen berbak baino ez dakizkit ordukoaz. Berorrek dakike inork jakitekotan. ni neu nire okerkuntzen zamak buruari arintasuna galazota bizi izan naiz urteotan. Izan zenagatik izan zela, ezkutuko asmorik antzematea Colombusengan, ez zen gaitz egiten. Susmoetarako zio ederrak izango nituen handik laburrera. Diodan bidenabar, eta irudi lukeenaren aurka, ene bizialdiko egun zorionsuenak Joannesen ondoan eman nituenak izan direla. Itsasoko karak banan-banan ezagutzea, kresal usaina eguargian kiribilkatzen zelarik arnastea, mastetan gora hodeien bila igotzea eta urganak garraiatzen zituen gauzakien berri aldarrika ematea, oi zoriona!

Zorion uneen artean, zer esan abuztuaren seian ikusi nuenaz. Lançarote non ote non ez ote, eztabaidan ibili zirenekoan izan zen, hau da, Gomerara jo orduko. "Lehorra, tierra", egin zuen aldarri masta nagusiko mutilak, euskalduna

baitzen, hango beste asko bezala. Begiratu eta han urrunean ikusi nuen Lançarote. Sutan zirudien, ezen kezko habe malgu bat zihoan zeruan gorantz. "Sua darien mendiak diagozak, gazte"; halako asko dituk gure brankak bilatzen duen lurraldean." Orduantxe izan zen; etxekoei haren berri emateko gogoak min eman zidan hemen barruan, orain ere sutan dudan bularreko alde honexetan.

-IV-

Ez diot esan behar berorri itsasoko egunak zer diren, ezta gauak ere. Asperdura, gogaitzea, marinelon arteko txantxak, kartatan ematea orduak, txoriren bat ekarri duenak hari mintzatzen ikasten jardutea edo, nik neuk bezala, musika tresnaren bati soinua jarioaraztea. Bihulea egunez eta Joannesen nabigazioko liburua gauzez, ez nintzen pizti bihurtuko, zeren itsasoa arriskurik egotekotan, horixe berori baita handiena, pizti amorratu bilakatzea. Horren alboan, eta orain dakit jauna, zer da Portugaleko karabela ondo armatuak gure usuan dabilzala jakitea?

Portogaleko karabelek ezin moztu izan ziguten bidea, gureak arinagoak baitziren. "Colombus hau Portugalen ibilia duk, mutil, eta itxura denez ez ziotek barkatu besteri saltzea saltzeko duena, zer den ere hori." Joannesek berak misterioitsu hitz egiten zidan. Misterioa eta ezkutukeria areagotu egin zen laster. Gomeratik irten eta hiru gau beranduago, agindu zehatza igorri zion Colombusek Joanesi; eskriba zitzaian lekua gutxiago egindakoak baino, badaezpada ere, zeren egunen batean liburua marinelei erakutsi beharra balezate ere, iruzur egin liezaiekete. Hala bada, urrunera jotzeko asmoa zuen gure Almiranteak, marinela arruntek besterik uste bazuten ere.

Hiru egun baino ez, berriro diot, eta marinelek ere euren mesfidantza, euren haserrea, modu beldurgarrian erakutsi zuten. Karabelak arretarik gabe gobernatzen hasi ziren, halako moduan, non Almirantea bera konturatu eta agirika egin zien. Behin eta berriro egin behar izango zien zarata Colombusek, zeren marinelek ez zioen on irizten hark esandakoari. Beraz, zer zela eta sartu ziren gizon haiek halako menturan, zer akuilatuta, nabigatzen hasi baino ez eta etsitzeko? Joannesek eta hurrengoko egunetakoek agindu zidaten.

Irailak hamar bete zitueneakoak idazten ziharduen Joannes eta ni haren alboan, baten bat ate joka etorri zenean. Ireki eta arnasa hartzeko astirik gabe esan zion, "orratzek dardakada itzela izan dute, itzela". Orratzen dardara, ez nuen halakorik sekula entzunda jauna, ez bainintzen, berori izan zenaren alderantziz, itsasoko hizkera ohitua. "Sartalderantz joateko garela agindu digu eta, hara, lau egun baino ez eta iparralderantz aldatu gaitu, zeren orratzek ipar-mendebaldea eta ipar-sortaldea erakusten izan dute euren dardaran". Ahal izan zuen moduan lasaitu zuen Joannesek Arturo, berau baitzen gure lemazaintzako lagun haren izena.

"Entzudak ondo, gu ez gozak mendebaldeko derrotan, apur bat iparraldeari buruz baino; bila gabiltzan pasabidea ez dik egundo ere inork igaro, ez bada hiru lau naufragok eta ontzi galduren batek. Guzti horren berri zekitek Colombus eta Pintzon anaiek. Eskifaiak ordea, ez zekik ezer." Ikaratu egin nintzen. Joannesek bere besartean hartu ninduen, eta garondoa laztandu zidan, eta musu eman zidan bekokian. Kubiartatik egundoko aldarriak zetozen.

"Aoahhh, aoahhh", masta nagusiko zelatariak branka aurrean gurerantz zetorren zer ezagunen bat erakutsi gura zigun. Begiratu genuen eta ikusi genuen zer zen; masta itzel luzea, ehun eta hamar kupulen besteko luzerakoa, itsasoak abiada bizian zekarrena. Gure ababorrean igaro zen, harrapatzeko egin genituen ahaleginek huts egin baitzuten, beste misterio bat, alegia, masta hura, nondik zetorren, hain zuzen ere, gure branken aurrean genuen itsasalde zabal eta ezezagun harexetatik sortua baitzen. "Hik ez dakik korronteen berririk; korronteen biribil handiak osatzen ditiztek; iturriko behean geratzen den uretan jausten diren gauzatxoak nola ibiltzen diren jira eta bira, bada, horixe dituk korrontek, jira eta bira egiten duten biribiltxoak, zeintzuetan sartuz gero eurek nahi duten norabidean eramaten gaituzten."

Jakin nuen, bada, halako korronte indartsu baten bila genbiltzala, hark bere baitan eroango gintuelako, ezein haizek baino arinago eroan ere. Itzultzeko aldiz, ez zuen inongo oztoporik ikusten Joannesek. "Ez ahaztu, joan eta etorri egiten dik korrontek", halaxe ziozan.

Zalantza eta ardurak modu zoragarrian uxatu nituen, horregatik. Irailak hamahiru zituela, eta halaxe idatzi genuen, erdaraz garxoa izena duen hegazti luzanga eta airoa ikusi genuen, sartalderantz. Jakin beza berorrek, lertxuna deritzagun hegazti mota horretakoa da garxoa. Handik apur batera agertu zena, berau ere ekialderanzko bidean, ez nuen egundo ikusia; "rabo de junco", halaxe deritzala esan zuen marineletariko batek, ez dakit hegaztiaren beraren atzekalko lumek osatzen zuten ihitzagatik ala, bestela, ezaguna edo lehenago ikusia zuelako halakorik. Zenagatik zela ere, arraitasunezko oihuetan urtu ginen, aoahhh! aoahhh! eta txistu egin zionik ere izan zen. "Halakoak ez dira lehorretik hogeitaz edo hogeitaz bost lekua baino harago ausartzen; beraz, hortxe dagoke irlaren bat edo."

Ez dakit ez ote zen Colombusen beste trikimailuren bat guri sinestaraztea hegaztiaren esan zutena, ene buruari galdetzen baitiot oraindik ere, nongo itsasoan zukeen ikusia halakorik hango marinel bakar batek ere. Berorrek ondo daki, Jauna, lehorreko gizakume asko zen gure eskifaian, gerora egin izan diren gainerako bidaia aldietan izan diren heinean, behinik behin. Alabaina, poztu egin nintzen, ortzian inongo sostengurik gabe, ez bada hegal singleena, igarotzen ziren haiengan gure buruaren ispilua ikusten bainuen; ez gindoazen bada gu geu ere urezko beste ortzi batean, ezein sostengurik gabe, gure oinen azpian krask egin aginean genuen zurezko hegalaren altzoan?

-V-

Suzko adar miragarria ikusi genuen, irailak bere erdia bete zuen goizean. Gure karabelatik lau edo bost lekua harago, itsasoan jausi zen, inguruan halako koroa izarniatsua utziz iraungitzeko. "Urrea dagoke laster zapalduko dugun herrian, ezen su horiek urrea urtzeko galdara diren zuloetan jausten dira ere." Urrea, behin eta berriro urrea aipatzen hasi ziren guztiak. Horretara egin nintzen egiaren jabe; urregura zen haiek guztientzako akuilua, euren herria utz zezaten eta itsasora abia zitezten.

"Idoroko dugun mundua miragarria duk, mutil; ikusi duk bada sua uretan jausten eta orain zirimirri honek bustitzen hau. Halaxe lantzen duk altzairua, lehenik sua, gero ura, burdina bien baitan erabiliz." Euri fina ari zuen Joannesek

berbok esan zizkidan gauean, zeinetan hantxe bere ganbaran gera nendin eskatu baitzidan.

Geratu nintzen, bada, Joannesen ganbaran, eta bihuelari nota ahul batzuk jariarazten hasi nintzaiolarik, ene lepoan pausatu zituen bere beso luze eta indartsuak. "Mairua nauk ni jatorriz; esan eta isildu egin zen, luzaroan besterik esan gabe geratu ginen biok, ni bihuelari mintzarazten eta bera nire lepoa laztantzen. "Tresna hori geuk ekarri genian kristauon artera, beste zer asko bezala; baina gure denborarena egin dik, arrotz egin gaituk gurean, Granada, fruiturik preziatuarena kristauen ahoak haginkatuko dik jagotik. Laster granadak ez dik garaurik edukiko eta gure arrazaren aztarnetarik harrizko ormak baino ez dituk zutik geratuko."

Kristalaren gardentasun bereko negar anpuluak labaindu zitzaizkion masailetan behera Joannesi. Bihotza esturirik, bihuela isilarazteko agindu nion eskuari. Adineko inor negarrez ikusi nuen lehenengo bidarra izan zen hura. Berorrek daki Jauna, lurralde hauetan makinatxo bat gizonek egin du negar, gure oin madarikatuak hemen pausatuz geroztik. Negarrak begietatik kentzen zituela zutitu zen Joannes.

"Gure arren gurak sendatzen dakizkien bedarra zeukeat hemen; horrexek legunduko dik gure baitako ekaitza. Jok, jok bihuela ezen herrimina herrimin, gu biok elkarrekin Ozeano deritzan itsaso galdu honetan egotea zelebratu behar diagu."

Bihuelari ekin nion, poz estrainioz, Joannesek egiten zuenari beha geratzen nintzalarik tarteka. Nik usteko nuena egin beharrean, hau da, bedarra ontziren batean uraz nahastu, berak han zituen pipa luzanga haletako bat betetzeko erabili zuen. Iziotu baino lehen beste ontzi bat hartu zuen eskuartean eta begira nengoelako esan zidan, "barrua ez ezik kanpokoia ere legundu beharra diagu; olio usaintsuzko ukendu honek egingo ziguk bakea".

Jauna, jakin beza berorrek hurrengo berbez eskribatuko dudana zoragarria izan zela, barruak ezelan ere bortxatu gabeen egina. Joannesek pipako bedarra iziotu zuen, utzi zuen han bazterrean eta ipini zen nire atzean; atorra gerriraino erantzi zidan eta leguntsu ukendu hura hedatu zuen nire azalean. "Utzik bihula eta erreik pipakoa, astiro", agindu zidan amultsuki, berba laztangarriz.

Irentsi nuen keak barruak bete zizkidan. Eztul artean makurtu banintzen ere, laster suspertu nintzen, halako eran non ostadarrak eta udazkeneko oihan horilduak ikusi uste izan bainuen. Joannesek berriro ekin zion ukenduz ni laztantzeari. Mundua, hemengoia ez beste mundu bat bizitzen nengoen, ukenduak eta keak bertara eroan banindu bezala. Hegaz egiten nengoelako ustea izan nuen.

Utzi zion Joannesek ni ukenduz laztantzeari. Pipa eta bihuela eskatu eta nire aurrean jarri zen. Atorra erantzi zuen. "Egidak nik egin diadan moduan." Ukenduz laztandu nuen, lepoan hasi eta gerriraino, berak airean kezko habe ttikiak eraikitzen eta puzka desegiten zituen bitartean.

Eskatu zidan bere alboan lo egin nezan, ezen kanpoan euria ari baitzuen, eta men egin nion. Baketan nuen barrua, leguntasunez bere soina, eta halaxe etzan ginen, biok elkarren besoetan. Loa apatx isilez etorri zitzaidan begiak epeltzera eta ametsetan egin nuen gure herriko erriyooa, hango kurriloak eta lertxunak, etxondoko tantaia eta gurdien kirrinka basoan barrena ihesean.

-VI-

Biharamunean, domeka, gozamenezko goiz atsegina argitu zuen eguzkiak eta itsasoa hain zegoen bare non Sevillako ibaia begitandu zitzaidan. Urretxindorren txintak aditzea, besterik ez genuela falta, esan zion Colombusek Joannesi nire aurrean. Marinel artean zebilen artegatasuna eta arregura sendatzearen etorria zen Almirantea gure karabelara, zeren espantuak jota zegoen eskifaia. Ez ziren, bada, hamar egun joan Gomeran abiatu ginenez gero, inongo lehorrik ikusi gabeen?

Zorionez, beste gertaera bat izan zen Almirantea ateka gaizto hartatik atera zuena. Gure enbarkazioen alboetan belar multzo itzelak, ezin berdeagoak, ageri ziren. Abiadan zetozen, suge luzeen antzeko bideak zabalduz urganen. Marinel adituek lehorraldea hantxe gertu izatearen seinaleztat hartu bazuten ere, zuhurrago mintzatu zen Almirantea. "La tierra firma la hago más adelante", esan zuen. Haatik, gizon hark guri zioskuna baino hobeto bide zekien Ozeano eta Ozeanoko gorabeheren berri.

Belarrezko segizio haren barruetan zeozeren aztarnarik ote zegoen ibili ziren gure eskifaiako batzuk. Alde izan zuten adurra, hango belarren artean karramarro garau bat aurkitu baitzuten. Nahiz eta bakarra izan, garen jatorria zatekeen balizko ibaiaren kontuak egiten hasi ziren, poz betez. Eskifaietako beste batzuk, aldiz, ezadostasuna modu nabarmenean erakusten hasi ziren, karramarroa gorabehera. Penintsulara itzultzeko eskatzen zioten Almiranteari. Sartalderanzko bidean igarri genuen hegazti saldo itzela, zeinaren norabidea gure okerreko derrotaren seinaleztat hartzen baitzuten.

Iruzur egiteko ala bestek egiaz ohartarazteko, trikimailu franko zekien erabiltzen Colombusek, ordea. Lehenik, iparraldean zarragoza antzematen zela eta, han erdian lehorra zegoela, irlaren bat behintzat, berak urteetan ikasitakoak esaten ziola baina, amore eman zuen. Ontzi bakoitzak zenbat lekua eginda zegoen jakin zedin, pilotuak deitu zituen. Gurean egin zuten batzarra, erdi husturik genituen nire arrain-kupelen alboan. Colombusen pilotuak lauhun lekua eginak ginela zioen arren, beste biek hogeitahi gehiago zioen batak eta berrogei gehiago besteak. Eta ezbaia luzean sartuta zirela, alkatraza ageri zen. Eta alkatraza lehorretik zetorrenez gero, beste egun bateko bidea egin zezaketela proposatu zuen Colombusek.

Hurrengo egunean beste alkatraz bi pausatu zitzaizkigun; irailaren hogeian hiru txoritxo etorri ziren gure kubiartara, ziur errekoak ihi-txoriaren antzekoak zirelako. Goizalde izan zenez txoriak agertzea, galduta zebiltzalako ustea nagusitu zen gure artean. Egun argia baino lehen han joan ziren gure derrotan. "Halako txoriek lehorrean egiten ditek lo", maestrek esan zuenari Joannesek erantzun zion; "Edo baleen gainean".

Gizon zuhurra Joannes. Ene bizitzako lehen balea han ageri zen, Irailak udako azken eguna eman zigunean. "Uda joana duk gaur, eta beituak, hemengo aire legun eta bizigarri hauek ez dituk negukoak, udakoak baino. Zuzen zebilek Colombus, eta zuzen zebiltzatek Pintzon anaiak. Biribila duk gure mundua eta alde batean negua deneko uda duk bestean."

Eskifaiaren lehor-minak ez zuen asebidetik aurkitzen Jauna, ezen hango haizeak eroan eroaten gintuen, nora ez genekien arren; alabaina, zein haizek ekarri behar gintuen atzera gure abialekura, zioetan Joannesek. Eta diodan bide batez, Jauna, gau hartakoaz geroztik, Joannesekiko adiskidetasuna letra eta lumeroetara ez ezik, bizitzako beste hainbat alorrekoan gure grinak elkarri azaltzera ere zabaldu zela; ez genion elkarri larrua berriro ukitu hala ere, zeren haren barruan kezka endelekatzen gaitz egiten zitzaidan bat sumatzen bainuen.

Udazkeneko lehen goizean aldiz, haize gogorra ekarri zuen eguraldiak, denon pozerako. Izan ere, gero eta ugariagoak ziren gure masteri eta apailuetara hurreratzen ziren hegaztiak. Irudi zukeen zerua bera aieruka zebilgigula, belar berdezko erreka luzeak eratzen zirelako, esan guran legez, lehorra hortxe duzue eta har ezazue adorea, har ezazue kemena. Horrextan ginen, bada, Columbus eta gure kapitain Martin Alonso Pinzon, zeinaren izenak txori mota batena dakarren gogora, elkartu ziren gure naoan, zeren halako karta batetan seinalaturik zituen gure nagusiak hango aldean hiru izaro behar zirela agertu.

Esan beza berorrek Jauna, nongo karta ote zen hura, itsasalde hain urrunekoak ere seinalaturik zituena. Areago, Alonsok lurraren albirestea egin zion egun berean Colombusi. "Gloria in excelsis deo" esan eta belaunbiko jausi zen Almirantea. Marinelak eta maestreak, mutil txikiak eta sotoetakoak, denok igo ginen mastetan gora, lehorra ikustearen irrikaz. "Hogeitaka lekuatara" zioten trebeenak.

Iluntzea eta gero gaua etorri ziren, hango urruneko maldetan behera, agudo bai agudo, eta berriro ere agindu zehatzak izan zituen Joannesek; idatz zitzala leku bitan eta bakoitzean lekua lumero ezberdinak. Biharamunean ikusi genuen zelan aginduriko lehorraldea ez zen besterik gure begien irudikeria baino.

Mira eginda nabigatu genuen hurrengo egunetan, ikustean zelako arrainak ageri ziren, urrezkoak, eta zelan agertu zitzaigun hegazti bat, marinela batek robiforçado zela zioena, hau da, buztanokerra. Hegazti horrek barrukoa gomita arazten die alkatrazei, gero hondakin galdu haiek berak irents ditzan. "Ez duk gure bidaia honen nondik norakoa endelekatzeko bide okerra buztanokerraren jarrerari alderatzea Almirantearena", esan zidan Joannesek. Berorrek daki, Jauna: ez zebilen okerregi.

Alkatrazak, pardelak, belar multzo itzelak, lehorraren mina irrika mingarri egin zitzaigun errailetan, buruan ez ezik. Zerua aiemak areagotu egiten zuten gure mina, ezen igarri genituen izar berri batzuk, iluntzeetan gure alboan zirenak, eta goizez gure naoren azpian agertzen zirenak, eta orratzak dardara egiten zuten gauetz eta arteztu berriro egunez. "Orratzek ez zekitek gezurrik esaten", zioen halakoetan Joannesek, antzinako sekreturen baten jabe denaren ziurtasunaz.

Urriko lehen egunak euri erauntsia ekarri zuen. Denok izan genuen seinale ontzat, hile hasi berri hark mundu berria zapalduko genuena izango zelako ustean. Arrainak urganen hegaldatzen ziren eta belar multzoak aranean antzeko igaltxoetz gainezka zetozkigun alde guztietatik. Halako batean, urriaren

lauan, berrogei bat pardela etorri ziren gurera; alkatraz bi ere agertu ziren gero eta nik, upeletako antxoa gatzituen gainean pisu egiteko neuzkan harrietako bat jaurti nuen, alkatrazen baten gorputzaren bila. Bi egun beranduago Martin Alonso gure kapitaina hasi zen aginduak ematen, Almiranteak eman beharrean.

"Zergatik jaurti diok harria", Joannesek galde egin zidan, haserrez. Mutu geratu nintzen, ez bainuen zio jakinik izan. Umekeria, artean gizon egin gabe bainengoen, esango du berorrek. Hala bedi, eta zeruak barka beza nire errua.

-VIII-

Zehatz gobernatu zuen Alonsok naoa, beste biak gure atoian moduan jarraitzen zitzaizkigularik. Eskifaien adorea suspertu egin zen, bada, gizon haren irmotasunarekin aurrez aurre.

Aginduta ziguten, nork lehorraren albistea eman, hark izango zuela Errege-Erreginaren mertzedea, zeina hamar mila marabedikoa izango zen. Bada, mastetako begiraleei agindu eman zien, adi egon zitezen, zeren laster lehorraldea izango baitzuten begien menean.

Lurrun usaintsuak aditu genituen eta hegaztiak saldoetan, itsasoa bare Sevillako ibaiaren pare, eta begiraleak lonbardari su eman eta albiristea egiteko prest, halaxe nabigatu genuen hiru egunez. Zaputz eginda guztion itxaropenak, bidaiaren luzeaz kexu hasi ginen guztiok, ni neu ere, Joannesen eroapenak nire irrika baretzen ez zuelako. Colombusek gogor erantzun zuen, esanik zelan bera Indietara ailegatzeko asmotan zela itsasoratua eta zelan ez zuen amore emango, harik eta lurralde haietan oinak pausatu arte.

Antzarrak, alkatrazak, beleak, mendi-zelaietako hegaztiak hurreratzen zitzaizkigun egunean baino egunean ugariago, eta gauez ere saldoak igartzen genituen, euren igaroaldian, gure paduretan barrena etortzen direnean bezala, euren karrank eta hegal-hotsez. Niregan ortziko bidaiari haiek sortarazten zuten lilurak ez zuen eraginik eskifaiako gehienengan. Lehorra igarri aurreko egunean gogor egin behar izan zien Almiranteak, Jainko lagun Indietara iritsi arte ez zuela amora emango, ez zegoela itzultzerik, eta ekin ziezaioten, ekin, zereginari.

Gure Pinta zihoan aurrean, bera baitzen hiruren artean nabigatzen trebeena eta halaxe izan zen gure eskifaiako Rodrigo de Triana zeritzan marinelak izatea mundu berria lehenengoz ikusi zuena; horregatik, ez zuen irmoegi esan nahi izan lehorraldea zenik, harik eta beste inoren begiek ere egiaz jabetu arte. Hala bada, dei egin zion Pero Rodriguez erreposteroari, zeinak sua ikustea begitandu zitzaiola esan zuen. Errege-Erreginak begirale izendaturik zuten Segoviako bati ere esan zioten eta honek ez zuen ezer igarri han urrunean. Bada, Almirantea bera ere gurera etorri zen, eta begiratu zuen, eta esan zuen ikusi zuela arimentzat kanposantuetan iziotu izaten diren kandelatxo horietariko baten antzeko sua, mehea eta dardara batean.

Agindua eman zuen Colombusek, begirale zorrotzenak izan gintezen, ezen lehorraren albiristea zalantza izpirik gabe eman zezan lehenari setazko jupoia eman behar baitzion. Hara, bada, Colombus haren jukutrien beste etsenplu bat, Maiestateek hamar mila marabediko saria agindu eta bera,

ustekabeen, jupoi baten eskaintza egitea. Geroago jakin nuen, Jauna marabediak Columbusek berak hartu eta gorde zituela, zeren gizon haren izenak ortzian baketsu hegaldaten diren usoen oihartzuna bazekarren ere, hobe zihoakiokeen miru erizta, edo arranoa, edo beste edozein harrapari.

Gauerdia igaro eta ordu bi beranduago lehorra antzeman genuen, guretik bi lekuatan. Bada, haize-oihalak bildurik, treo izenekoak nabigatzen hasi ginen, brisaren arrimuan, astiro eta leun. honetara izan zen ailegatu ginela bertakoek Guanahani deritzaten izarora. Nik nire baitan beste su bat nuen izioturik lehorrarekiko grina ez zena. Harria jaurti nion zorioneko hegaztia zetorkidan begietako barrualdera eta hemendik ene barru osora.

-IX-

Ez diot azaldu behar berorri Jauna gure lehorreratzea zelan izan zen, ezen gogaidura handieneraino inprimatu eta zabaldu da ordukoa. Almiranteak erret-bandera eskuetan, Gurutz Berdeko bandera bana kapitain biek, F eta I letrak ageri direlarik gurutzetako pabilioietan, halaxe lehorreratu dira eta han ikusi dituzte arbolak, fruituz gainezka, euren zorian, eta ura jori eta piztiarik ez, ez bada papagaio deritzaten hegaztia; eta Almiranteak deitu du armadako izkribau nagusi egiten duen Rodrigo d'Escobedo, zeinari diotson eman dezan fede, zelan berak, Colombusek, gu beste guztion aurrean izaroaren jabe egiten duen bere burua, beti ere bere Seinoreak diren Errege eta Erreginaren izenean, eta diotso bada eskribuz gorde dadin guzti hau.

Laster bildu zitzaigun aldra itzela gure ingurura. Biloa ezik goitik behera biluzirik, ezin jo genituen piztiatzat, Jauna. Haatik, boneta gorriak erregalatu zizkion Almiranteak, beronek ere ikusten baitzuen haiek gizakumeak zirena, gure berdin berdinak ez ziren arren. Almirantearen esku zabaltasunak beste trikimailu bat ezkutatu zuen, ordea; indioek urregorria non gordetzen zuten esan ziezaioten egin zituen erregaliak.

Urregorria, urriaren hamabian lurralde haietan oinak pausatuz geroztik eta gabonetan Almirantea penintsularako bidean sartu zen arte, sarrien errepikatu zuen hitza berori izan zen. Urregorria! Kontua da Jauna hango gizakume haiek aurpegiak karez estalita ageri zituztela, denek baitzuten zeinek bere maskara edo karatula, zeinek bere marka edo seinalea, eta guztiak ahalegintzen ziren guri ekartzen euren zer guztietarikoak, hala seta finezko matazak, zelan geziak edo papagaioak. Eta inoiz marinel treberik ikusi bada hangoak bai trebeak, ezen zuhaitz enbor hustuetan sartuta nabigatzen ziren, labeetako gatzemalleek erabiltzen duten pararen antzekoez eginez arraunena. Piragua zeritzaten batel antzeko hari eta gorputzetan zauriak zituztela ikusi genituelarik, lehor irmotik bila etortzen zitzaizkiola otu zitzaigun, hain ikusten genituen otzan eta meneko, ziur esklabotzat erabiltzen zituztenaz.

Colombusen begiek ez zuten beste ikusminik urregorria baino, horregatik. Izarorik izaro igaro ginen, zeini izen berria ezartzen geniolarik, ezen jainko bako haien berbakeran izenduak baziren ere, komeni zen Jainkoaren eta Errege-Erreginaren belarrietara ulergarriak izango zirenak ezartzea. Gainera, bidaia haren burura onez ailegatzea ahalbidetu zuten guztien izenak betirako gordeak izan zitezten ere bataiatu zituen kristau izaroak. San Salvador, Concepción, Fenandina, Isabela, azken hau urregorritzko lurmuinak ei dituen

Samoet haren ordeko bataiatu zuen Colombusek, arrosario luze bateko kontuak dira guztiak. Behin edo behin, itxaropenerako zirrikituren bat, hala zelan, urriaren azken alderantz, non hango izaroetako buru iritzi geniona ezagutu genuen; goitik behera urrez josita, eta aieruz eta ahal zuen eran esaten zigularik, "han urrunagoan ugari dago urregorria".

Eskas zegok hemen urrea, eta hain eskas non gutxiri asko irizten dioten, eta eurentzat asko dena guretzat hutsaren hurrengoa duk. Joannesek arranguraz egin zidan aitopena. Irudi zukeen etorri zela zer edo nor jakinen baten bila, eta halakorik aurkitu ezean suhilik geratu zela haren baitakoa. Arrangura eta hats-beherapena niregan ere gero eta larriagoak ziren. Ilun nuen barrua Alkatrazari harria jaurti nionez gero. Orain ere, berbok eskribatzeko doi-doi ditudalarik indarrak, bortitz eta bizi gogoratzen zait alkatrazaren irudia, odoletan gure kubiertan, hilotzik.

-X-

Jauna, urbegirik xumeena, ur lasterrena, xirripa, lats, erreka eta azkenean ibai lodi hazten da, ibiliaren ibiliz eta itsasorako bidean; hala bada, alkatrazaren zaurietako odolbegia laster haziko zen, eta bai lodi hazi ere, oraingo itsaso hau, gorriaren gorriaz beltzitua, bilakatu arte.

Hemengo lurraldeetan izandako gorabehera odoltsuetan berorren irizpidea tentuz eta zuhurtziaz osa dezan agindu diote berorri; bada, hasiera non egon den jakin dezan idazten diot eskutitz hau, zeina egitearen trukean eskatzen diodan ere etxekoei nire berri eman diezaien berorrek. Berri ematean aldiz, nitaz errukitu eta lotsagarriak diren jazoeren gainean martintxorria urganen bezala igora dadin eskatzen diot.

Zorioneko mila bederatziehun eta laurogeita hamabiko Gabonak otu zitzaizkion egoki gure Almiranteari, izaroetan soldau erreten bat utzirik berriro abia gintezen Penintulara, non gure aurkikuntzen albiristea zabaldu eta armada berri bat atonduko zuten. Colombusen hitzen araua, hurrengo urteko Gabonetarako itzuliko zen armada berriaren burua, lehenago egiterik ezinezko bihurtzen baitzuen halako enpresek eskatu ohi duten arreta, tentu eta zuhurtziak. Eta zuhurtzia berba izkribatu berri nagoela, aitor dezadan ez nuela zuhurtzat jo ni han geratzeko ziren artekoen beste bat izan nendin, ez ezeren beldur nintzelako, ez bada ere eman zidaten ardura, izkribau jardutearena, nire gaitasun apurrei gainez egiten ziena zelako. Ez nukeen onartu, Joannesek eskatu izan ez balit.

"Hire begi zorrotzak luzamendua hire esku trebean izango duelakoan, eta hemengoan hitzak ez ezik usainak eta hasperenak, errekuak eta alarauak, artezekoak eta okerrekoak, denak pergamura ekartzen jakingo dualakoan hik, ene konfiantza guztian uzten haut; ez egidak huts egin, ene seme galanta". Ez nion huts egin Joanesi, Jauna, nik eskribaturiko orri luze guztiak ezerezean geratuko baziren ere. Navidad izeneko kanpamendua zer zela eta erre zen, oraintsu egin diot gutuna Bartolome izeneko lekaimeari, zeinak argitara ekartzear duen India Berrietako suntsidura eta galmendiaren berri zehatza emango duen liburua. Esana diot, baita, nire izenik aipa ez dezan, berorri ere halaxe eskatzen diodalarik hau azaltzen diodan eran. Ezen errudunik baldin

badago orduko eta harrez gerozko odol jausteetan, ni neu nau berorrek, Jauna.

Zerutik etorritakotzat jo gintuzten berberak, zero eske egiten zuten laster ihes mendialdera. Eskuetan ezere trukean gabe seta, kotoia, eta papagaioa ipini zizkiguten jende amultsu, abegikor eta barm arraikoak laster egin zion gu akabatu beharrari. Eurak ala geu, halaxe erabakitzera behartu genituen, aitortzen dut.

-XI-

Geroko kronikak hogeita bederatzia gizon aipatzen dituzten arren, berrogei ginen Españolako "Navidad" gotorlekuan geratu ginenak, ni neu ere artekoa nintzelarik. Mila bederatziehun eta laurogeita hamahirugarren urte hasi berriko urtarrilean izan zen, ordurako urregureak ezinikusi pairaezinak sortuak zituela Martin Alonso eta Almirantearen artean. Elkarrenganako mesfidantzak aginduta, txopan utzi gintuzten. Ez horregatik gerora egingo zenaren etsenplu xume bezain esanguratsua erakutsi gabe.

Artean gure "Navidad" hartatik lekua batzutan aldendu ez eta lehen odol jaustea eragin zuten. Indio bi zauritu zituzten paraje haietatik aldendu orduko Santa Mariakoek. Odolbegia lats bihurturik genuen.

"Navidad" gurean egotaldi luzea egin beharko genuena sumatzen genuelarik, gure bizimodua atontzeari ekin genion, indioek Bohio zeritzaten hartan Almiranteak utzi zituen hiru ordeko nagusien agindupean. Diego de Arana, Pero Gutierrez eta Rodrigo d'Escobedo gure hiru buruen izenek ez didate gogotik alde egin urteotan.

Ogia eta bizkotxoa urtebeterako adina, artilleria franko, naoko bateletariko bat eta indioekin trukean jarduteko bitxikeriak utzi zizkigutelarik, soloak erein eta industriaren bat atondu beharko genituen, aurrera egingo bagenu, behinik behin. Aitzitik, berorrek ere ondo ezagutzen du gizasemeon arima, zein erraz lerratzen den gaiztakeriarantz, zein oharkabean igarotzen den nagikeria hutsezko mizkerietatik ankerkeriarantz, zelako moduan egiten den gure barruan asmo ederrenen mudantza.

Txikitan herrian, bion sorteria den Bosturia horrexetan jauna, soro eta ortuetako langintzetako funtsa ikasia nintzenez gero, hango landare batzuez geure baratza atontzea otu zitzaidan. Indioek begi onez ikusi eta euren laguntza eskaini zidaten, bihotz zabalez. Mesedearen trukean arrantzan irakatsi eta arrain gatzituak kupeletan gordetzeko antzea erakustea erabakita nengoen. Indioen begirunea neureganatzen hasita nengoelarik, belar gaiztoak ernaldu ziren kristau batzuegan. Indioen borondatezko laguntzari atarramentu handiago kendu eta ezertan nekatu gabe bizimodua ateratzea gogoan sartu zitzaionik ez zen falta han.

Gero eta esklaboago egin zituzten mutilak hartu zituzten morroitzat, lehenik; laster bururatu zitzairen indio nagusiek borondatez ekartzen zizkieten jatekoak eta beste ez zirela nahikorik. Horretara ausartu ziren esklabotzat hartzen, hau da, gau eta egun euren pentsura egon zitezen behartzen. Uko egiteko adorea zuen indioari zigorra ezartzen zioten, halako moduan non Inkisizioaren tormentuak hutsaren hurrengo ziren haien aldean. Bada, berorrek

ere daki Jauna, gure eskifaietako zenbait Tribunal Handi horrexen hortzeginen artean ibiliak ziren, ez justizia ezartzen, tormentuaren laztura eta aladara euren larruetan frogatzen baizik.

Gorrotok ondo beterik zegoen godeletak tanta bat falta zuen, bat besterik ez, gainez egin zezan. Etorri zen, etorri ere, tanta hori. Hango buruzagietako baten emazteari eder irizten zion Arana kapitainak, halako modu grinatsuan non eta berarekin atsegintzea beste temarik ez baitzuen. Emazteak ihes egiten zion, ahal zuen moduan eta, hara ezbeharra, bortxaz hartu zuen emearen larrua.

Harrez gero ez genuen bakerik izan. Nirekin jarduten zuten indioek alde egiten zidaten, ez baitzuten ezelako hartu-emanik nahi gurekin, hasieran zerutik jaitzitzako jauretsi eta zegoenerako deabruen berdintzat gintuzten kristauokin, alegia. Zelan guk ozta-ozta bereizten genuen indioen artean banako ezberdinak zirena, halaxe egiten bide zitzairen euren ere gaitz gure artean ona eta gaitza bereiztea. Eta mendekuak denok bildu gintuen odol jauste berean.

Indioek ez dute izkilurik, berorrek ondo daki Jauna. Haatik, geziak eta aizkorak maitasun miragarritz erabiltzen dakizkitez, batez ere itzalek begi zorrotza urrea baino baliotsuago bihurtzen dutenean. Gaez akabatu zuten Arana hura, gezi zorrotz bakar bat sorbaldan sartu eta bihotza erdi bi eginez. Bizirik ziren beste kapitain biek mendekubiera jo zuten, itsukeria itzelaz. "Navidad" ahuleko hesiaz kanpora irten genuen biharamunean, bizirik aurki genezakeen edozein indioen haragiari larrua erauzteko prest denok, neu ezik; zeren nik, Jauna, Alkatraza bainuen buruan, haren odola, eta odolaren gainean odola zetorrela ikusten nuen. Bada, txalupa hartu eta ihes egin nuen. Ez urrunera, horregatik. Hiru-lau lekuaren buruan txalupa zulatu eta igeri etorri nintzen berriro Españolara, berau zelakoan nire bila ibiliko ez ziren leku bakarra, hurrean.

Indioek kristau guztiak akabatu zituzten, ez gerrari trebeagoak zirelako, ez bada ere gehiago zirelako, ze hil, ugariago hil ziren bertokoak ia zeruan izarrak baino. Alabaina, nork iraungi litzake zeruko izarrak oro banan-banan, ez eta diganterik handienak bertara joanda eta puzka hasita ere. Munoietan barrena ezkutuka, "Navidad" misiolari su eman zuten arratsekoak begiztatu nituen. Suak suari dei eginda bezala izan zen guztia, ezen lehenago kristauek San Lorentzoren martirioa ema bazietan hango batzuei, indioek Arimen infernua iziotu zieten kristauei.

Barkatu ahalko du berorrek nire dorpezia, hala jazoerak izkribatzeran aldetikoa, zelan baita horretan darabildan desordenu eta nahasmenaren aldetik ere. Bartolome de la Casas Jaunari idatzi berri diodan gutunak asebate utzi nau, zeren irudi luke odolarekin gogoratzean odol guzti horren usaina aditzen dudala, halako moduan non Jainkoari eskatzen diot, arren, bizi honetatik ken nazan, esanik infernura joanda ere ez dela nire barruko su hau hangoa baino epelagoa izango.

-XII-

Erruduna naiz, Jauna. Lurralde berri hauetan egin diren triskantza, txikizio eta odol jauste guztietan errudun nagusi bat baldin badago neu naiz hori. Zeren "Navidad" hartako lehena izan zela badiote ere, besterik ere izan baitzen

antzinago. Alkatrazari harria jaurtitzean hasi zen akabera lurralde hauetan, zeintzuk ez omen dira betiko Indiak, India Berria baino. India Berriok beste kontinente bat omen dira, eta Joannesek behin esan zidana egia delako albiristea ere zabaldu da, hau da, gure mundu hau biribila delako ustea omen dago. Mundu berri honetan kristaua nora agertu, odol jauste, lantua eta aladura besterik ez daroa bertara. Eta arestian esan diodan bezala, Jauna, odolezko itsaso honek behar ditu bere ibai lodiak, euroetatik hartzeko; eta ibaiek behar dituzte erreka-adarrak, lodi daitezen; eta errekastorik ttipiena bera ere mendian behera datozen xirripetan hasten da, eta xirripetako ur lasterrak urbegia behar du. Hala bada, galda dezagun non dagoen guzti honen odolbegia eta gure "Pinta"ko kubiartan hilda datzan alkatrazaren gorputzean antzemango dugu. Eta odol horren erruduna neu naiz, Jauna.

Españolan bakardadean eman nituen egunetan gogoan hartu nuen guzti hau eta Colombus bigarrenez agertu zenean ezkutuan gorde nuen nire burua. Hirugarrenez eta hamaikagarrenez etorri izan dira kristauak berriro, zenbat aldiz etorri hainbestenez handiago egin dute baizik hemengo odolezko itsasoa. Bada, nire arimak ez du bakerik, non sosegaturik ez dut, eta irudi luke azoge geldoa dudala erraietan, zeren burua beste zerbaitetan izatearren era guztietako zereginetan ahalegintzen naizen arren, infernuko suak ditut irakiten ene baitan.

Naturako osagarri guztien artean halako lotura trinkoa dagoela sinesten dut, Jauna, eta ustea dut ezen nire lehen harrikada hura gabe zer izan zatekeen geroko guztia. Lurralde hauek paradisuaren berdina dira eta, diot, ez ote zigun Jainkoak froga berri bat ezarri gura izan hona ekartzean, ikus zezan berak sendatuak ote ginen gizakumeok, bekaizkeriazko bekatutik libre, hala izanez gero bigarren paradisu baterako era izan genezan. Heresea ote naizen guzti hau gogoan hartzeagatik Jauna, zer ardura dit horrek? Evak sagarra hartu zuen, hain gauza xumea hain errukiorra, sagarren berdina begitantzen zait: gure borondate onarentzako auziarria. Huts egin nuen Jauna.

Arren eskatzen diot nire berri eman diezaien nire etxekoei, ez gurasoei hilda egiten baititut, baina bai anai-arrebei. Jakin dezaten Jainkoaren eskuetan utzita hil naizena, ene buruan laborrian, geroko penengatik ikari gabe. Hangoek nekez sinetsiko dute hemengorik, hemengoek hangoa irudikatzerik ez duten moduan. Bada, zertarako argibideak eta azaltzeak. Azken egunean denok juzkatuko gaitu Goiko Ahaltsuak, banan-banan. Egun horretan, adituko dira berriro Jerikoko turuta-hotsak, itzartuko dira hilak eta zein bere hilobitik jagiko gara denok. Nirea apala izango da, dagoeneko aginduta dudan moduan; harri biluzia eta ondoko hitzak baino ez ditu izango irarrita:

Hemen datzana da
harria jaurti zuena